

C. Zumárraga 7,
Entrada Maestro Iciar
48006 Bilbao
t: 94 679 22 92
m. 645 005 426
info@lataller.com
www.lataller.com

NATURA EZ DA JAUZIKA ERALDATZEN

TESTUA: JUAN GUARDIOLA

1957an Francisco González de la Riva y Vidiella zuzendariak Truchas y salmones film laburra ekoiztu zuen. XI. Marqués de Villa Alcázar izenaz ere ezaguna zen zinemagile honek hainbat film egin zituen gobernu errepublikarraren agindupean. 1941tik 1966ra Nekazaritza Ministerioko Argitalpen eta Propagandarako Aholku Batzordearentzat lan egin zuen, etengabeko film-ekoizpen batean murgildu zen, nekazaritzari buruzko 71 dokumental filmatuz. Bere publikoa analfabetoa izanik, Markesak “parabola” erabiltzen zuen jendearengana iristeko, ulergarriagoa zen lengoia sinbolikoa baliatuz¹. Film laburrak dira, zientifikoak baina dibulgaziozkoak, eta umorea eta iruzkin patriarkala erabiltzen dituzte ikusleen arretari eusteko; izan ere, publiko hori hiritarragoa zen landa-eremukoa baino. Horren adibide dugu “hitzaldi-zinematografiko” gisa sortutako film hau. Bertan, musika-aukeraketa zainduaz lagundurik, off ahotsa duen narratzaile batek ibai-arrantza kanaberarekin kudeatu, kontserbatu eta gozatzearen inguruko jarduerak gorapatzen ditu. Gerraosteko giroari hain lotua dagoen tonu patriotikoa, propagandaren eta dibulgazio zientifikoaren artean kokatua, Espainia frankistari buruzko iruzkin positibo bihurtzen da; izan ere, Francisco Franco izokina “arrantzan” agertzen duten erretratuek diktaduraren irudi ikonikoenetako bat osatu zuten.

Krisi klimatikoa dela eta, gaur egungoarekin alderatuta 1957ko izokinaren egoera oso bestelakoa da; arazo horri buruz hausnartzen du Miriam Isasik *La naturaleza no procede por saltos* (2025) proiektuan. Artista honen lanak prozesua, esperimentazioa eta ekintza lantzen ditu arte bisualetan, eta, aldi berean, “anbigua, absurdoa eta ironikoa”² uztartzen ditu, gorputza eta haren protesia, autokonstrukzio-sistemak, memoria demokratikoa edo natura bera bezalako gaietan. Azken honi dagokionez, Isasik gizakiarena ez denari erreferentzia egiten dioten hainbat pieza egin ditu, zehazki landare eta animalia munduari lotuak. *Tósigo* (2021) instalazioak edo *Conservas pre-apocalípticas* (2018) lanek herbarioren gaia berritzen dute; bestalde, *El nido del pájaro tejedor* (2008), *Un cobijo para el hombre pájaro* (2008), *No existe el delito en los procesos naturales* (2012), *Lanzamiento de moneda* (2014), *Caballo Blanco - Zaldi Zuria* (2019) edo *Carpinteros* (2019) bezalako obrek izaki bizidun guztien arteko elkarbizitza planteatzen dute. Donna Harawayk³ proposatzen dituen “elkarren konpainian dauden espezie” horiek posthumanismoa bezalako testuinguru batetik abiatzen dira; posthumanismoa antropozentrismoa bere epistemologia zentral gisa ez duen filosofia izanik.

La naturaleza no procede por saltos proiektuan, artistak Aristotelesen “natura non facit saltus” printzipiotik abiatzen da; tesi horren arabera, natura modu ebolutibo eta pausatuan aldatzen da, eta hori gezurtatzen du gertakari zehatz baten bidez: Bidaso ibaiako salmonidoen ahultasuna. Izokinak oztupoak gainditzeko egiten duen ahaleginak porrotera kondentatzen du, igoera-saiakeren ehuneko handi batean, egungo klima-aldaketaren testuinguruan. Izokinak eta amuarrainak munduko zati handi bateko ozeano eta itsasoetan banatutako arrainak dira. Espezie anadromoak dira, eta haien bizi-zikloa ur gezako eta ur gaziko etapetan zehar garatzen da; ziklo horretan, jaiotza ibaietan gertatzen da, ondoren ozeanorako migrazioa egiten dute, eta azkenik korrontearen kontra igotzen dira ugaltzeko, larben eta alebinen garapena ur gezetan gertatzen baita. Izokina gizakien kontsumorako elikagai osasungarria da, proteina-eduki handia, omega-3 gantz-azidoak eta gantz gutxi izateagatik, guztiak ere osasun kardiobaskularrerako onuragarriak. Horregatik, joan den mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, haren hazkuntza eta ekoizpen komertziala akuikultura-sistemetan egiten da; hala ere, faktore horrek ez du eragozten izokin-hazkuntzak ingurumen-inpaktua izatea ere, ozeanoen eutrofizazioa areagotzen baitu.

Nafarroan hainbat jarduera egin dira “Izokin Atlantikoa” berreskuratzeko helburuarekin, Bidaso ibaiaren arroan; besteak beste, populazioen jarraipena, haien indartzea eta espezie honentzat egokiak diren habitatak lehengoratzeko. 2021ean egindako txosten batek oso ale gutxi lortu zutela ibaiaren gora egitea adierazten zuen, eta kopuru horrek aurreko urteetako datuekin alderatuta, beherakada baiez-tatzen zuen. Arrantza-denboraldia murrizteak edo “Apadrina un salmón” birpopulatzeko programak ez dute aleen gainbehera arindu, eta horrek adierazten du Bidasoak “hustubide” gisa jokatzeko duela; hau da,

esportatzen dituenak baino izokin erratiko gehiago jasotzen ditu. Horri gehitzen zaio espezie honek estiaje-garaian duen hilkortasun handia, alegia, lehortearen ondorioz urteko zenbait garaitan ibaietako urek izaten duten mailarik baxuenean. “Nafarroako Izokin Atlantikoaren Kudeaketa Planaren”⁴ arabera, ondoriozta daiteke Bidasoa ibaiko espezie honen populazioa “Egoera Desfavoragarri” batean dagoela; horrek esan nahi du igoera egiten duten aleen kopurua kontserbazio-maila onargarriaren mugatik behera dagoela, baina kontserbazio-muga kritikotik gora. Datu guztiek adierazten dutenaren arabera espeziea birpopulatzea eta habitata berreskuratzea bideraturiko neurriak ezartzen jarraitu beharra dago.

Hauxe da Isasik abiapuntu gisa hartzen duen gaiaren egoera: izokinak korrontearen kontra, igoera-ahaleginean, egiten duen saiakera uraren mailari eragiten dioten tenperaturaren igoerak eta lehorte luzeek baldintzatzen dute. Horrela, ibaiaren emaria txikiagoa da, eta, ondorioz, arrainak egin beharreko jauzia handiagoa izan beharko litzateke; horrek porroten ehunekoa handitzen du. Egoera kritiko horretatik abiatzen da artista fisikaren, naturaren eta potentzialaren arteko paradoxa planteatzeko, “jauzia indar/inertzia gisa eta parabola forma/formula gisa hartuta”⁵. Eraitza hodi modular metalikoz osatutako eskulaturak dira, brontzezko harriak ensanblatuak dituztenak, eta lurrean kokatzen dira, serigrafiatutako formula matematikoen gainean. Piezen garapenerako, artistak azken urteetako Bidasoaren batez besteko emaria, aukeratutako oztopoen neurriak eta izokinak horiek gainditzeko egin beharko lukeen jauziaren luzera kalkulatu ditu. Isasik jauziaren parabola desberdinak aztertu ditu matematikarien laguntzaz, eta elkarrizketa eta interpretazio sortzaile eta hipotetikoen erabilerak diren eskultura bihurtu ditu.

Izokina, artea eta Bidasoa ibaia dira Isasiren proposamenaren parametroak. Arrain honi buruzko erreferentzia artistikoak bilatzen baditugu, haren irudikapena “natura hila” generoaren barruan baino ez dugu aurkitzen; adibide gisa, Luis Meléndez-en *Bodegón de salmón, limas y vasijas* (1772), Francisco de Goya-ren *Ruedas de salmón* (ca. 1806-1812) edo Édouard Maneten *Salmón* (1868) lanak. Testuinguru geografikoari dagokionez, aipatu behar da Bidasoako Eskola deiturikoa (1895-1919), paisaia-pintura “plenairista” lantzen zuen artista-talde bat, Gaspar Montes Iturrioz katalizatzaile nagusi gisa zuela, korrante artistiko⁶ honi izena ematen dion ibaiaren bokalearen inguruan jarduten zuena. Artelan horiek ez bezala, Isasiren lanak itxura fisikoaren mugak gainditzen ditu, “bodegoi” edo “paisaia” generoetako ezaugarrien gainetik, eta gaur egungo izokinaren problematikaren aurrean kokatzen gaitu, honek bere irudikapen piktorikoarekin zerikusirik ez duelarik. *La naturaleza no procede por saltos* proiektuak naturak artearen barruan eta gure bizitzetan duen lekua buruz hausnartzen du. Natura jada ez da paisaia hutsa, baizik eta subjektu aktibo bat, begirada antropozentrikoa gainditzen duena eta lurreko izaki guztiak –animaliak eta landareak ez ezik, baita mendiak, ibaiak eta ozeanoak ere– komunitate⁷ bakar gisa aitortzen ditu. Isasiren lana filosofia posthumanistan, materialismo berrietan eta komunitate indigenen edo jatorrizkoen ikerketetan oinarritzen da, lurra baliabide ustiagarri mugagabeen iturri gisa eta “gizateriaren” erabilera eskusiborako ikusten duen estraktibismoa salatzeke; aldi berean, natura izaki bizidunen multzo edo elkarketatzat ulertzen du, indar geologiko eta klimatikoekin elkarreaginean, mundu bidezkoago eta iraunkorrago bat irudikatzeke.

⁴Ikus Agustín Gómez Gómez-en “Modos de hacer y pensar el documental científica rural” (Landa-eremuko dokumental zientifikoa egiteko eta pentsatzeko moduak) testua VVAA-n. (2025), Villa Alcazarreko markesa. 1934-1966 zinema-lana, Madril, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.

⁵Proiektu horiei buruzko informazio gehiago izateko, artistaren web-orria kontsultatzea gomendatzen da: <http://miriamisasi.com/>

⁶Espezie laguntzaileen arteko bizitzari dagokionez, ezinbestekoa da Maria Ptqk-ek (2019) argitaratutako *Especies del Chthuluceno, Panorama de prácticas para un planeta herido*, Bilbao liburua kontsultatzea. Sycorax eta 2021ean komisariatu zuen erakusketaren katalogoa *Ciencia Fricción. Vida entre especies compañeras*, Bartzelona: CCCB. Kontzeptu horiek hobeto ezagutu nahi izanez gero, Donna Haraway (2019) irakurtzea gomendatzen da, *Seguir con el problema. Generar parentesco en el Chthuluceno*, Bilbao, Consonni eta Vinciane Despret-en (2022) *Autobiografía de un pulpo y otros relatos de anticipación*, Bilbo, Consonni.

⁷Testu hau idatzeko, Nafarroako Gobernuak egindako eta argitaratutako “Izokin Atlantikoaren Jarraipena Bidasoa ibaian 1921ean” txostena kontsultatu dut. Esteka honetan ikus daiteke: <https://www.navarra.es/documents/48192/7222658/Memoria-Salmon+2021.pdf/76969e09-41a0-7a6d-3166-91a30a2c003? t = 1658995563251>

⁸Informazio hori artistarekin posta elektronikoz (2025-12-7) izandako korrespondentziaren bidez lortu da.

⁹Bidasoako Eskola Oloteko Eskolarekin batera garatu zen, eta biek Frantziako Barbizon Eskolan izan zuten aurrekaria. Bernardino Bienabe Artía, Gaspar Montes Iturrioz, Ignacio Echandi, Julio Caro Baroja, Juan Larramendi Arburua edo Menchu Gal margolariak osatzen zuten taldea.

¹⁰Daniela Zyman eta Álex Martín Rod/2025 irakurtzea gomendatzen da, *Terraflia. Más allá de lo humano en las colecciones Thyssen-Bornemisza*, Madril, Thyssen-Bornemisza Museo Nazionala